



## HEZKUNTZA SAILAK 556 PLAZAKO LAN-ESKAINTZA PUBLIKO BAT IRAGARTZEN DU.

### **Beste erkidego batzuetan lan publiko eskaintzak ezabatzen diren bitartean, Euskadin Hezkuntzako langileen egonkortasuna bultzatzen da**

Hezkuntzaren sektoreko mahaian negoziatu ondoren, datorren 2012. urtean 556 irakasle-lanpostu sortzeko beste lan-eskaintza publiko bat egitea erabaki du Isabel Celaák zuzentzen duen Sailak. Krisi ekonomiko orokor larriaren egoera batean ikastetxe publikoetako plantilen egonkortasuna hobetzen jarraitzeko Jaurlaritza egiten ari den "esfortzua" baloratzeko eskatu die sektore-mahaiko buru den Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordeak, Marisol Estebanek, sindikatuei.

556 plaza berri horiekin, 3.603 izango dira legealdi honetan karrerako funtzionarioak izatera iritsi ahal izango diren langileak: 1.081 2009an, 451 2010ean, 1515 aurten eta aipatutako 556ak datorren urtean. LEP horiei esker, euskal hezkuntza-sistemaren behin-behinekotasunaren maila % 10 txikiagoa da eta, ondorioz, ikastetxe publikoetako lau irakasletatik hiruk gaur egun lanpostu finkoa dute. Izan ere, lau urte hauen bukaeran, Isabel Celaáren Sailak Hezkuntzaren behin-behinekotasuna gutxitzeko azken hamarkadetan egin den esfortzu handiena gauzatua izango du.

Behin-behinekotasunaren maila horrela jaisteak irakasleen lan-baldintzak kualitatiboki hobetzea dakar eta ikastetxe eta institutuen hezkuntza-eskaintza hobetzeko bermea da. Izan ere, plantilen egonkortasunari esker, ikastetxe bakoitzak gauzatzen dituen hezkuntza-proiektuei jarraipena eman ahal izango zaiela bermatzen da. Halaber, eta legealdiaren hasieratik, ikasturtearen hasieran plazak esleitzeko sistemaren optimizazioarengatik, aurtendik metodo telematiko bidez egiten da, bitarteko funtzionarioen baldintza pertsonalak hobetu dira. Metodo telematiko horiek erabiltzeak aukera berriak eskaintzen dizkie irakasleei oporrak hartzeko orduan, Internet-en bidez, edonondik eta haien atsedena eten behar izan gabe egin ahal izango baitute lanpostura sartzeko eskaera.

Hezkuntza Sailak 443 plazako eskaintza batekin eman dio gaurko mahai sektorialean negoziari hasiera. Bileraren bukaeran, eta sindikatuak ados ez zeuden arren, beste 114 plaza eskaini ditu eta, guztira, 556 plaza izatera iritsi dira. Nahiz eta akordiorik ez lortu, arduraz jokatzeko eskatu die Marisol Estebanek gizarte-eragileei eskaintza hori baloratzeko orduan, estatu osoan egiten den LEP bakarra izan litekeelako.

**Oharra:** Lanpostuen xehetasunak dituen dokumentu bat eransten da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 1a